

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4503

AGINDUA, 2016ko urriaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Ikertzaile doktoreentzako Mugikortasun Programarako deialdia egiteko dena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ustez, ikertzaileentzako mugikortasun-programak tresna egokia dira komunitate zientifiko eta teknologikoa prestigio handiko ikertzaileekin harremanetan jartzeko, bai eta unibertsitateko irakasleen ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratu eta perfektionatzeko ere.

Kontuan hartu da Lehendakariaren martxoaren 1eko 8/2013 Dekretua (2013ko martxoaren 7ko EHAA), dekretu horrek aldatu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen dekretua.

Halaber, kontuan izan behar dira, batetik, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena; eta bestetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartu zuena.

Aintzat hartu da, orobat, diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko araudia, bai eta laguntza eta diru-laguntzei aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere.

Oinarri hartu da, gainera, Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuordearen 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoa (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ordainduko diren gastu-espedienteak aurrez izapidetzeko modua arautzen da).

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen helburua da norgehiagoka-erregimenean laguntzetarako deialdia egitea, ikerketa-zentroetan dedikazio eksklusiboarekin egonaldiak egiteko, bi helburu hauek betetzeko: batetik, I+G+b zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzea, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasuna hobetzea.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzaileen lan-ildoan integraturik egongo den; edo, bestela, goi-mailako lotura eta elkartrukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

2. artikulua.— Egin beharreko proiektuak.

1.— Mugikortasun-egonaldietan egin beharreko proiektuak deialdi honetan adierazitako helburuari egokitu behar zaizkio.

2.– Honako printzipio hauek errespetatu behar dituzte proiektuek:

a) Honako adierazpen eta hitzarmen hauetan ezarritako oinarrizko printzipioak: Helsinkiko Adierazpena (Munduko Medikuntza Elkarteak), Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Giza genomari eta giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala eta ikerkuntza biomedikoari, datu pertsonalen babesari eta bioetikari dagokienez Espainiako legedian ezarritako baldintzak.

b) Gizakiekin ikerketak egin edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek uztailaren 3ko 14/2007 Legean –Ikerkuntza Biomedikoari buruzkoan– araututakoa bete behar dute. Era berean, lege horri lotuta egongo dira: gizakien enbrioietan jatorri duten zelulak eta ehunak edota horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea espezifikoki eskatzen duten ikerkuntza-proiektuak.

c) Saiakuntza klinikoak xede dituzten proiektuek otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar dute.

d) Animaliekin esperimentuak egitea dakarten proiektuek indarrean den lege-araubidean ezarritakoa bete beharko dute, eta bereziki otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa (53/2013 Errege Dekretua, Esperimentuak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako nahiz irakaskuntzarako erabiltzen diren animaliak babesteko oinarrizko arauak ezartzen dituen).

e) Genetika aldatuta daukaten organismoak erabiltzea dakarten proiektuetan bete beharko da, batetik, Genetika aldatuta daukaten organismoak bakarturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legea, eta bestetik, lege hori garatzen duen arau orokorra onesten duen urtarrilaren 31ko 178/2004 Errege Dekretua.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuak, berriz, azaroaren 8ko 31/1995 Legean –Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoan– eta hori garatzen duten errege-dekretuetan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, agente biologikoekin kontaktuan izatearen ondoriozko arriskuei dagokienez.

g) Azkenik, material genetiko hartzea edo trukitzea xede duten proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Ituna, eta uztailaren 26ko 30/2006 Legea, Mintegiko Haziei eta Baliabide Filogenetikoei buruzkoa.

3. artikulua.– Destinoko zentroak.

1.– Honako hauek izan daitezke destinoko zentro: laguntza-eskabideak aurkeztutako proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleiturik dituztenak, halako moldez ezen berme baitira perfektzionamendu profesionala eta proiektuko helburu zientifikoak lortzeko.

2.– Destinoko zentroek, betiere, zera eskatzen dute: izangaiak bizileku finkoa aldatzea mugikor-tasun-aldi osoan zehar.

3.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egon beharko dute destinoko zentroek.

4. artikulua.– Laguntzen finantzaketa.

Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 120.000 euro bideratuko dira.

5. artikulua.– Onuradunak.

1.– Laguntza hauen onuradun honako hauek izan daitezke: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, haien agente-kategoria edozein delarik ere, betiere

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 2. artikuluekin bat etorritik (2015eko uztailaren 16ko EHAA, 3170. zk.).

Edozelan ere, honako hau hartuko da erakunde onuraduntzat: ikertzaileak integratzen dituen, betiere entitate horrek nortasun juridiko propioa badauka.

Erakunde onuradunek honetarako soilik erabiliko dituzte laguntzak: eskabidean eta deialdiaren ebazpenean izendaturik agertzen diren ikertzaileentzako eta jardueretarako.

2.– Ezin izango dira agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan honako hauetan jasotako egoeretakoren batean dauden erakundeak: Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan.

6. artikulua.– Egonaldien eta hautagaien ezaugarriak eta laguntzen zenbatekoak.

1.– Egonaldien ezaugarriak eta baldintzak.

a) Egonaldiaren hasiera-egunak 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra bitartean egon beharko du.

b) Egonaldiak gutxienez bi hilabetekoak izango dira, eta gehienez ere seiokoak.

c) Emate-ebazpenean zehaztutako egunetan hasi beharko da egonaldia. Salbuespenez, eta egonaldia hasi baino lehen, hasteko eguna atzeratzeko eskatu ahal izango da, egoki arrazoitako idazki batez eskatu ere. Zientzia Politikarako Zuzendaritzak erabakiko du halako egonaldia atzeratu daitekeen, eta justifikaturik dagoenean baimena eman ahal izango du. Ikertzaileak ezinbestean 2017ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko du destinoko zentroan.

d) Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango da laguntza.

e) Proiektua destinoko zentro bakarrean egingo da.

2.– Egonaldietan, kanpoan izateak, aldaketak eta etenak.

a) Zentroa hartzailean, egonaldiak etenik gabe gauzatu beharko dira. Proiektutik datozen zioen ondoriozko kanpoan egoteak, talde hartzaileko arduradunaren adostasunarekin egin beharko dira, eta erakunde onuradunak Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio, kanpoan zein egunetan egon den eta hartarako arrazoiak zein izan den zehaztuaz.

b) Justifikatutako motiboak direla, aldi baterako etena baimendu ahal izango da, gehienez ere bi hilabeterako, eta, betiere, egonaldiaren guztizko denbora ez bada gutxienez ezarritakoaren azpitikoa.

Etenaldia egiteko eskabidea erakunde onuradunak aurkeztu beharko du, eta talde hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna jaso beharko du. Etendako epealdia berreskurazina izango da betiere.

c) Egonaldiak baliatzeko epeetan nahiz diru-laguntzak emateko hasierako baldintzetan jazotzen den aldaketa orok izan beharko du Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren baimena.

Etenaldia egiteko eskabidea erakunde onuradunak aurkeztu beharko du, eta zentro hartzailearen adostasuna jaso beharko du. Edonola ere, egoki arrazoituak eta, beharrezkoa bada,

dokumentatuak izan beharko dute eskabideek. Proposamen egokia egitearren, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, egoki irizten dien txostenak eskatu ahal izango ditu. Aldaketek ez dute funtsean aldatuko laguntza emateko izan ziren baldintzak, hasteko epeei, egonaldiaren izariari, proiektuari edo zentro hartzaileari dagokienez, salbu eta hartarako kausak behar bezala egiaztatutak direnean.

3.– Ikertzaileak.

Ikertzaile hautagaiak honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Egiaztatutako lan-loturari dagokionez zerbitzu aktiboan izatea. Hautagaiak erakunde eskaerarekiko duen lan-loturak egonaldia amaitu arte iraun beharko du.

b) Doktore izatea.

c) Erakundearen lanpostu-zerrendan kontratu mugagabea izatea, bi urteko antzinatasunaz. Irakasle atxikien lotura duten ikertzaileen eskaerak onartuko dira, betiere irakasle agregatu edo titular gisa egiaztatuta badaude eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

d) Aurreko deialdien babespean programa honetatik zein antzeko ezaugarriak dituen beste edozeinetatik laguntzarik jaso ez izana, 2014ko urtarriletik hara eta metatutako sei hilabetetik gorako epe batez. Egindako egonaldien epealdi metatua 6 hilabetetik beherakoa bada, laguntza eskatu ahal izango da, baina 6 hilabetera arte geratzen diren hilabeteetarako bakarrik.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, laguntza-eskabidean jakinarazi gabeko ikerketa-egonaldi bat egiten badu ikertzaileak edo halako bat esleitzen bazaio, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio. Epealdi horren zenbaketak berekin ekar dezake esleitutako aldia murriztea edo hautagai izateko aukera galtzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean badaude eta talde horrek jaso eta indarrean badu «A» edo «B» taldea delako errekonozimendua, EAEko unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzeko deialdiaren gaineko ebazpen bidez.

f) Eskabidea egiterakoan beteta izan beharko dira baldintza guztiak, eta izan beharko dira egonaldia hasten den egunean.

4.– Laguntzen zenbatekoa.

a) Hileko, 1.500 eurotik 2.400 eurora bitartekoa izango da laguntza. Destinoko herrialdeko baldintza ekonomiko eta sozialen arabera finkatuko da zuzkidura; betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, kontuan izanik honako datu hau: herrialdeen Barne Produktu Gordina (BPG biztanle bakoitzeko, \$), Nazioarteko Diru Funtsarena.

b) Laguntza gehigarria emango da destinoko zentrorako joan-etorriak guztiz edo partez ordaintzeko. Honako taula hau hartuko da kontuan zenbatekoa zehazteko:

Abiapuntutik helmugarainoko distantzia	Bidaia-gastuetarako laguntza
1.000 km-ra arte	300 euro
1.001-2.500 km	600 euro
2.501-11.000 km	1.000 euro
11.000 km-tik gora	1.200 euro

Kilometroak kalkulatzeko, erreferentziatzat hartuko da <http://es.distance.to> estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza. Agindu honen ondorioetarako, eskatzaileak lantokia duen probintziako hiriburua hartuko da jatorriko hiritzat.

Bidaian norberaren garraiobideak erabiliz gero, justifikatutako kilometroak kilometroko 0,29 eurotan ordainduko dira.

Joan-etorriak egiteko bisa izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

c) Deialdi honen bitartez finantzatutako jardueretan parte hartzen duten erakunde onuradunek, bidaian laguntzeko aseguru bat izanen dute, egonaldiak atzerrian egiten badira; eta, interesdunak eskatuz gero, ezkontideak eta 25 urtetik beherako seme-alabek ere baliatu dezakete, egonaldian berarekin badira. Aseguru hori izatezko bikoteentzat ere baliagarri izan daiteke, halako direla frogatuz gero, betiere ordenamendu juridikoan onartutako edozien probaren bidez.

7. artikulua.— Eskaerak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.— Formulario batez osotu beharko dira eskabideak; eta hura bide telematikoz eskuratu ahal izango da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2016/ikermugikortasuna/y22-izapide/es>. Eskabidea elektronikoki sinatzeko, erakunde eskatzaileak erakunde-txartela izan beharko du, eta, halakorik ezean, legezko ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan alta hartu beharko du (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua) esteka honetan: https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza__ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representantes.html

Aplikaziora sartzeko bi era daude: ziurtagiri elektronikoaekin (NAN elektronikoa, ONA txartela, FNMT - Pertsona fisikoaren ziurtagiria) edo erabiltzailearekin eta pasahitzarekin. Aplikazioan sartzan diren pertsonak baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari (deialdiaren organo kudeatzaileari) nortasun-datuak egiazta ditzan, eskudun administrazioan, hain zuzen ere bitarteko elektronikoen bidez edo eskura diren beste bitarteko batzuen bitartez.

2.— Behin eskabidea osorik beteta, eta 8. artikuluan zehaztutako dokumentu erantsiak aplikaziora sartutakoan, erakundeak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, betiere 1. paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriaz; eta orduantxe bakarrik geratuko da erregistraturik eskabidea.

3.— Nolanahi ere, eskabideak Erantzukizunpeko Adierazpena barne hartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluko 6. atalean xedatu bezala (atal hori EAEko 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 5/2010 Legeak sartutakoa da). Adierazpenak obligazio hauek betetzen direla egiaztatuko du:

a) Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

b) Hautagaia ez dagoela sartuta itzultze- edo zehatze-prozedura batean, eta, hala badagokio, diru-laguntzak itzultzeko obligazioak egunean dituela.

c) Hautagaiak ez duela zigor administratibo edo penalik, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

d) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean sartuta ez egotea.

e) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla eta hautagaiak betetzen dituela laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

4.– Diru-laguntzak jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo kudeatzaileari zuzenean egiazta dezan hark zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dena dela, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena. Hala eginez gero, beharrezko egiaztagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu eskaerarekin batera.

5.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, eta aplikazio telematikoan sartu:

a) Egonaldian zehar egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria. Egonaldiak hautagaiari eta erakunde onuradunari dakartzkion onurak ere jaso beharko ditu. Gehienez hiru orri.

b) Hautagaiaren curriculum vitae, inprimaki normalizatuan edo baliokidean, zeinetan azken sei urteetako merezimenduak jasotzen diren.

c) Zerbitzu-orria edo enpresa-ziurtagiria, zeinetan honako hauek jasotzen baitira: antzinatasuna, eta hautagaiaren eta erakunde eskatzailearen arteko kontratu-harremana.

d) Ikerketa-jardueraren aldi baterako etena justifikatzen duten egiaztagiriak, 11.2.b) artikuluan jasotako kasuen arabera.

e) Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa, zeinetan jasoko baita ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitae, azken sei urteetakoa.

f) Laguntza jasoz gero, ikertzaile-taldeko arduradunaren konpromisoa, bere taldean hautagaia –eskatutako epealdian zehar– onartzekoa. Egonaldiaren helburuari eta garatuko diren jardueren buruzko deskripzioa jaso beharko du dokumentuak.

g) Hautagaiari lizentzia ematea edo emateko konpromisoa; erakunde eskatzaileko organo eskudunak eman beharko du lizentzia hori. Egingo den egonaldiaren helburua eta datak jasoko ditu dokumentuak.

h) Hautagaiaren ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioak dokumentu horren txantilo bat du.

i) Ikertzaile-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioak dokumentu horren txantilo bat du.

j) Hautagaiak lehenago egindako egonaldien ondorioz erakunde onuradunari datozkion onurak. Aurkeztutako ebidentziak bakarrik balioetsiko dira.

k) Euskal Autonomia Erkidegoaren arlo publikokoak ez diren erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak, hala xedatzen baitu Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduak (urriaren 15eko EHAA, 208. zk.). Organo kudeatzaileak behar beste aldiz egiaztatuko ditu zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak, horretarako ez du haien baimenik behar izango, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako laguntzak.

10. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 8. artikuluan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak 10 egun naturaleko epea emango die eskabide-sinatzaileei hutsak zuzen ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Hala agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Akatsak zuzentzeko errekerimenduak honelaxe jakinaraziko dira: 13. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako prozedurarekin bat etorriaz.

11. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak. Honako hauek izango dira batzordeko kideak: Zientzia Politikarako zuzendaria (lehendakaria izango da), Unibertsitateetako zuzendaria eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari bat. Teknikari hori Zientzia Politikarako zuzendariak hautatuko du, eta batzordeko idazkari izango da.

Batzordeak eskabide bakoitzari buruzko txostenak eska diezazkieke honako hauei: hautagaiak diharduten arloetan itzal handia eta ebaluazioan esperientzia duten ikertzaileei.

Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari igorriko dio laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena.

2.– Laguntzen esleipendunak hautatzeko, eskabideak balioesteari dagokionez, batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Egingo den proiektuaren edo jardueraren bideragarritasuna eta interes zientifikoa, betiere kontuan izanik destinoko zentroa eta proposatutako egutegia. 10 puntu.

Helburuen garrantzia, berritasuna eta definizio maila balioetsiko dira, eta bai lortu nahi diren emaitzak ere. Era berean, proposatutako helburuak gauzatzeko, talde hartzaileak eta hautagaiak duten gaitasuna balioetsiko da, eta bai metodologiaren, lan-egitasmoaren eta aurreikusitako krogramaren egokitasuna ere.

b) Azken sei urteetan hautagaiak lortu dituen merezimendu zientifikoak eta akademikoak. 25 puntu.

Puntu honetan, kontuan hartuko da hautagairen baten kasuan ikerketa-lana eten den, egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera, edo liberazioa, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak.

c) Azken sei urteetan, talde hartzaileko ikertzaile arduradunak lortu dituen merezimendu zientifikoak eta akademikoak. 15 puntu.

b) eta c) idatzi-zatietan honako hauek balioetsiko dira: argitalpenen eta ibilbide zientifikoa, ikerketa-proiektu eta -jardueretan izandako ardura, doktorego tesiak zuzentzea, patenteak, beste talde eta erakunde batzuekin egindako kolaborazioak, eta nazioartean muntako biltzarretan gonbidatutako egindako hitzaldiak.

12. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Lehiaketa-prozeduraz ebatziko dira laguntza-eskabideak. Hartarako, deialdi bakoitzean aurkeztu eta onartu diren eskariak alderatuko dira, haien artean halako hurrenkera bat ezartzeko, 11. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideei jarraikiz; eta guztizko puntuazioaren % 50 gainditu eta balorazio handiena lortu dutenak bakarrik esleituko dira, hain justu ere agindu honetako 4. artikuluan kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, sexu ezberdineko ikertzaileen artean lortutako puntuazioan berdinketa egonez gero, emakumearen aldeko ebazpena emango da.

Sexu bereko ikertzaileen arteko berdinketak eskaerak betetzeko aplikazioak txikitik handira ematen duen ausazko zenbakiaren arabera hautsiko dira. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskabidean agertuko da.

13. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Emandako laguntzak esleitzeko eta dagozkien zenbatekoak zehazteko prozedura hau izango da: balorazio-batzordeak proposaturik eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez, betiere sei hilabeteko epean, deialdia EHAA-n argitaratzen denetik hasita.

2.– Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren taula elektronikoan aipatu ebazpena argitaratuz egingo da jakinarazpena (<https://www.euskadi.net/>).

3.– Aurreko 2. atalean ezarritakoaz gain, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egindako argitalpenen abisuak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMS edo posta elektroniko bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

4.– Artikulu honen 1. atalean ezarritako epean berriazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskariak ezetsiak izan direla.

5.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.

tutakoak eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak; zehatzago esanda, hauek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Izan ere, diru-laguntza emateko ebazpenari buruzko jakinarazpena egiten denetik hamar egun igaro badira, eta onuradunak berariaz uko egin ez badio laguntzari, onartu duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza zein helburutarako eman zen, hartarako erabiltzea.

c) Laguntzaren helburua lortzeko, egonaldiari dagokion epealdia osorik betetzea.

d) Tokiz aldatzen den ikertzaileari emandako zenbatekoak ordaintzea. Erakunde onuradunak, ikertzailearengandik destinoko zentroan hasiko delako jakinarazpena jasotakoan eta organo emailetik laguntzaren % 75eko ordainketa aurreratua jasotakoan, tokiz aldatu zen ikertzaileari ordainduko dio zenbateko hori. Behin jarduera amaitu eta laguntza likidatutakoan, erakunde onuradunak likidazio horren ondoriozko zenbatekoa helaraziko dio ikertzaileari.

e) Gauzatzen direnetik harako 15 eguneko gehieneko epearen barruan, honako hauek jakinaraztea: destinoko zentroan altak, jarduerak etetea, aldi bateko kanpoan izateak, uko egiteak eta gainontzeko gorabeherak; guztia ere, honako helburu hauekin, batetik, Zientzia Politikarako Zuzendaritza guzti horretaz jakitun izan dadin, eta, bestetik, beharrezko bada, berariazko baimena eman dezan.

f) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan dihardutela eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruz.

g) Programa honen babespean egindako jarduerak dakartzaten emaitzak argitaratu edo zabaltzeko behar badira, honako erreferentzia berariazko hau egitea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Ikertzaileentzako Mugikortasun Programaren finantzaketa duela.

15. artikulua. – Laguntza ordaintzea.

1. – Laguntzari dagokion ordainketa erakunde onuradunari egingo zaio.

2. – Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi ordain-aginduren bidez.

Haietarik lehena, emandako laguntzaren % 75ekoa, honelaxe egingen da: Zientzia Politikarako Zuzendaritzan, erakunde onuradunak zentro hartzailean hasteari buruzko egiaztatzea aurkeztu ostean.

Bigarrenean, 2018. urtean, jarduera bukatutakoan, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoa ordainduko da, betiere hurrengo artikuluan eskatutako agiriak aurkeztu ostean.

3. – Irailaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zen. Bada, lege haren 50.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz: diru-laguntzak eta laguntzak esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo horko erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean iza-pidetzen ari direnak.

16. artikulua.— Diru-laguntzak justifikatzea eta haien segimendua.

1.— Agindu honetako laguntzen erakunde onuradunek justifikatu beharko dute jarduera burutu dutela, finantzaketaren helburua baita; eta, hartarako, Zientzia Politikarako Zuzendaritzan honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, hilabeteko epean, jarduera bukatzen denetik hasita:

a) Egindako egonaldiaren gainean, ikertzaile-talde hartzaileko arduradunak emandako egiaztargiria, zeinetan berariaz zehaztuko baitira hasiera- eta bukaera-egunak.

b) Egindako lana deskribatzen duen txostena, zeinean honako hauek jasotzen baitira: argitalpe-nei, patenteei edo ikerketaren ondoriozko beste edozein emaitzari buruzko erreferentziak; guztiek ere erakunde onuradunaren legezko ordezkariaren oniritzia dutela.

c) Bidai-gastuei dagozkien ordainagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

d) Erakunde onuradunak ikertzaileari egindako ordainketak egiaztatzeko agiria.

2.— Justifikatutako gastuak emandako diru-laguntza baino txikiagoak badira eta ez-betetzetik ez badago, diru-laguntza gutxitu egingo da justifikatu ez den kopurua kenduta, eta jasotako diru-laguntzak proportzioan itzuliko dira, dagokion prozedurari jarraituz. Prozedura hori Unibertsi-tate eta Ikerketa sailburuordeak amaituko du ebazpen batez, non hasierako ebazpena aldatuko den.

3.— Egoki iritziz gero, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta, horrez gain, emandako laguntzaren segimendua egiteko ardura emango dio zuzendaritza horri atxikitako pertsona bati edo batzuei, laguntza zertan erabili den ikusteko.

4.— Erakunde onuradunak eskatu zaion dokumentazio guztia aurkeztuko du, aplikazio informa-tikoaren bitartez.

17. artikulua.— Laguntzen bateraezintasuna.

Laguntza hauek bateraezinek dira helburu bererako ematen den beste edozein diru-laguntzarekin.

18. artikulua.— Ez-betetzeak eta laguntza itzultzea.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53. artikuluan ezarri-takoarekin bat etorrira (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), erakunde onuradunak ezin izango du laguntzaren ordainketa eskatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, batetik, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta, bestetik, laguntza ordaindu zenetik aurrera sortzen diren legezko korrituak eskatuko dira, baldin eta honakorik gertatzen bada:

a) Onuradunek, guztiz edo partez, bete gabe utzi badituzte deialdi honetako oinarriak, diru-lagun-tzei buruzko araudi orokorrekoak edo diru-laguntza emateko ebazpenean erabakitako baldintzak.

b) Diru-laguntza emateko eskatzen diren datuak ezkutatu edo aldatzen badituzte edo eskatu-tako informazioa iruzurrez manipulatzan badute.

c) Proposatutako helburuekin edo ezarritako epeekin bat ez datorren jarduera burutzea, Zien-tzia Politikarako Zuzendaritzaren baimenik gabe.

d) Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, diruz lagundutako egintzen segimendua egiterakoan, gastua proposatutakoarekin eta esleitutakoarekin bat ez datorrela egiaztatzen badu.

2.– Halaber, laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jazotako aldaketa orok berekin ekar dezake hura emateko ebazpena aldatzea, betiere onuraduna izateko ezarritako baldintza minimoak –diru-laguntzei buruzko arauak ezarritakoak– errespetatzen badira.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bitartez (1992ko otsailaren 7ko EHAA), honako hauek arautzen dira: diru-laguntzak itzultzeko prozedura orokorra, laguntza jasotzeko eskubidea galtzea, eta, hala dagokionean, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak eta horien legezko interesak itzuli beharra. Bada, dekretu horretako bigarren tituluan ezarritakoarekin bat etorritik, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenez egingo da goiko guzti horretarako deklarazioa, dagozkion prozedura-izapideak gauzatu ondoren; hargatik eragotzi gabe gainerako ekintza bidezkoak.

4.– Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

Aplikatzekoak dira, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan ezarritakoa (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa.

19. artikulua.– Datuak babestea.

Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, betiere Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik. Halaber, datuak «Ikerketa» izeneko fitxategian sartuko dira, 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututakoaren arabera (2010eko azaroaren 5eko EHAA). Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdia kudeatzea eta deialdian lehiatzen direnei prozesuaren bilakaeraren berri ematea. Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren organo arduraduna. Datuen aurka egin, datuetan sartu eta datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Hartarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz)..

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako laguntzak ebazteko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urterako aurrekontu orokorretan, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espedienteak aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioari buruzko 2007ko apirilaren 26ko Aginduen 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 18a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMA

Eskaera egiteko nahitaez aurkeztu beharreko agiriak:

	Eskabide-orria. Honako atal hauek ditu: – Erakunde eskatzailearen eta hautagaiaren datuak – Egonaldiaren ezaugarriak – Hautagaiak 2013. urtea baino lehen jasotako mugikortasunerako laguntzak Eskaerak egiteko diseinatutako aplikazioak eskabide-orria sortuko du, eskaera bukatu ondoren
a)	Ikerketa-proiektuari eta egitekoak diren jardueren buruzko txostena (hiru orrikoa gehienez)
b)	Hautagaiaren currículum vitae (azken sei urteetakoa)
c)	Zerbitzu-orria edo enpresa-ziurtagiria, zeinean honako hauek jasotzen baitira: antzintasuna eta hautagaiaren eta erakunde onuradunaren arteko kontratu-harremana
d)	Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa, zeinean jasoko baita ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitae, azken sei urteetakoa
e)	Ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren konpromiso-gutuna, non adierazten baitu hautagaia onartzen duela. Egingo den egonaldiaren helburua eta datak jasoko ditu dokumentuak
f)	Hautagaiari lizentzia ematea (egonaldiaren datak eta helburua zehaztuta, betiere)
g)	Hautagaiaren ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago dokumentu horren txantilo bat
h)	Ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago dokumentu horren txantilo bat

Egonaldia bukatu eta hilabeteko epean, erakunde onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu aplikazio informatikoaren bidez:

a)	Egindako egonaldiaren gainean, ikertzaile-talde hartzaileko arduradunak emandako egiaztagiria, zeinetan berariaz zehaztuko baitira hasiera- eta bukaera-egunak
b)	Egindako lana deskribatzen duen txostena, zeinean honako hauek jasotzen baitira: argitalpenei, patentei edo ikerketaren ondoriozko beste edozein emaitzari buruzko erreferentziak; guztiek ere erakunde onuradunaren legezko ordezkariaren oniritzia dutela
c)	Bidai-gastuei dagozkien ordainagiriak edo agiri baliokideak
d)	Erakunde onuradunak ikertzaileari egindako ordainketak egiaztatzeko agiria

II. ERANSKINA

ESKAERA-ORRIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMA		

A) ERAKUNDE ESKATZAILEA ETA HAUTAGAI ARDURADUNA

ERAKUNDE ESKATZAILEA			
<i>Erakundearen izena</i>			
<i>IFK</i>			
<i>Helbidea</i>		<i>PK</i>	
<i>Telefonia</i>			
<i>Helbide elektronikoa</i>			

HAUTAGAIA					
<i>Abizenak, izena</i>					
<i>NAN/AIZ</i>		<i>Sexua</i>	☐ <i>Gizonezkoa</i>	☐ <i>Emakumezkoa</i>	
<i>Helbide elektronikoa</i>		<i>1. telefonoa</i>		<i>2. telefonoa</i>	

<i>Saila</i>	
<i>Zentroa</i>	
<i>Arloa</i>	

B) EGONALDIAREN EZAUGARRIAK

PROIEKTUA / ZER IKERKETA-PLAN DEN LAGUNTZAREN XEDE

Titulua			
Arlo Sozioekonomikoa			
Hasiera-data		Amaiera- data	

APLIKAZIO-ZENTROA (ALEGIA, NON EGINGO DEN EGONALDIA)

Erakundea			
Zentroa			
Saila			
Herria		Herrialdea	
Helbide osoa			
Bisa izapidetzea		Bidaia-asegurua ezkontidearentzat eta/edo seme- alabentzat ere baliagarri izatea (**)	

(**) Eskaera-orriari agiri bat erantsi behar zaio, datu hauek dituen: Aseguruan sartu beharreko pertsona guztien izen-abizenak, jaiotze-data eta NAN-zk. Erantsi familia-liburuaren fotokopia edo haren baliokidearena. Gorde agiri guztiak dokumentu bakar batean, eta igo aplikaziora.

Aplikazio-zentroaren ikertzaile-taldeko arduraduna

Izena		1. abizena		2. abizena	
-------	--	------------	--	------------	--

C) LEHENDIK JASOTAKO MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK

2013ko urtariletik hona, jaso al ditu hautagaiak ikertzaileentzako hobekuntza- eta mugikortasun-programaren laguntzak edo antzeko beste batzuk?

BAI

☐

EZ

☐

Laguntza-programa	Hasiera	Amaiera	Entitate finantzatzailea

D) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak honako hau ADIERAZTEN DU:

1.– BAI / EZ (adierazi dagokiona) ☐

Helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik eskatu edo lortu du beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

BAI erantzunez gero, eskabidearen edo emakidaren kopia erantsi behar du.

2.– BAI / EZ (adierazi dagokiona) ☐

Martxan du edo izan du itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat, eta, hala badagokio, obligazioak ordaintzeke ditu, diru-laguntzak itzultzeari dagokionez.

BAI erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar du.

3.– BAI / EZ (adierazi dagokiona) ☐

Eskatzaileak zehapen administratibo edo penalak jaso ditu, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dutenak, eta halako laguntzak jasotzeko legeko debekuak ditu, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

BAI erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar du.

4.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo erakundeak xede bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabide batzuk eskuratzen baditu edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, konpromisoa hartzen du horren berri emateko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

5.– Eskabide honetako datuak egiazkoak dira, eta bertako zehaztugabetasunek sor ditzaketen erantzukizunak bere gain hartzen ditu.

Sinatuta:

Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, betiere Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritz. Halaber, datuak «Ikerketa» izeneko fitxategian sartuko dira, 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututakoaren arabera (2010eko azaroaren 5eko EHAA). Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdia kudeatzea eta deialdian lehiatzen direnei prozesuaren bilakaeraren berri ematea. Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren organo arduraduna. Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko eta datuak zuzendu eta ezabatzeako eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).